

254. ZENBAKIA-AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA-2022KO AZAROA

# UZTARRIA

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA

40. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

## ITUA JO ZUTEN



erreforma integralak

dica



**URRATEGI**  
INTERIORISMO  
bome diavina

www.urrategiinteriorismo.com  
Arragusta 27      Arretxe 9  
20600 Eibar      20730 Azpeitia

**MILAR**  
**LARRAMENDI**

Etxetresna elektrikoak

  
**Cooking  
& Chef**  
ELKALOR GUNEK

**ORAIN,  
LARUNBAT GOIZETAN ERE,  
ZABALIK GAUDE  
10:00ETATIK 13:00ETARA**

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • [www.milar.eus](http://www.milar.eus)

*Gabonak  
iristear daude.*

Jantzi zure etxea  
apaingarri berezienekin.

[www.kimubat.eus](http://www.kimubat.eus) | Urrestilla bidea, z/g. Azpeitia



**KIMUBAT**  
— GARDEN



# UZTARRIA 254

2022-AZAROA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
IÑAKI ARANBURU

## Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Ihintza Elustondo, *Animatzen al haiz?*
- 6 **Hementxe bertan** Mohammad Rafi, Azpeitian bizi den pakistandarra.
- 8 **Nire leihotik** Haizea Salegi, *Mugekin amesten.*
- 10 **Iritziak** Irati Aranguren, *Dikotomia*; Hiromi Yoshida, *Ohitura txarra?*
- 12 **Elkarrizketa** Amaia Iparragirre matematikaria.
- 18 **Erreportajea** Ikus-entzunezkoen kontsumoa Azpeitian.
- 25 **Lehiaketa**
- 26 **Erretratua** Iñaki Andres diseinatzailea.
- 30 **Plazan bazan**
- 33 **Iritzia** Oier Etxeberria, *Adarraren puntan.*
- 34 **Atzera begira** 40. Euskal Antzerki Topaketak.
- 40 **Iritzia** Miren Segurola, *Hurrengo geltokia.*
- 41 **Iritzi grafikoa** Itziar Aranguren.
- 42 **Klik!** Elikagunea.
- 46 **Iritziak** Amaia Alberdi, *Hosto ez iraunkorrak*; Ignacio Arakistain, *Haize bolada.*

UZTARRIA

TOKIKOM

### Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu 1. 20730  
AZPEITIA  
943-15 03 58  
uztarrria@uztarrria.eus  
www.uztarrria.eus

### Zuzendaria:

Julene Frantzesena  
**Erredaktoreburua:**  
Ihintza Elustondo  
**Erredaktore taldea:**  
Mailo Oiarzabal  
Julene Frantzesena  
Maialen Etxaniz

Ihintza Elustondo

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Martinez Albizu  
**Publizitate arduraduna**  
Angel Sarasua  
**Zenbaki honetako kolaboratzaileak:**  
Haizea Salegi

Irati Aranguren  
Hiromi Yoshida  
Itziar Aranguren  
Olatz Alkorta  
Oier Etxeberria  
Miren Segurola  
Amaia Alberdi  
Ignacio Arakistain  
Elena Margüello

Iñaki Aranburu  
**Inprimategia**  
Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)  
**Lege Gordailua:**  
SS-860/2000  
**ISSN:** 1576-7337  
**Tirada:** 2.500 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



uztarrria  
AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA



## PUBLIZITATEA



**ostadar optika**  
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

**EGUZKI**  
belarrenda  
dietetika  
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-60 34 47 AZKOITIA  
Urtiarie 9 bis 943-15 00 23 AZPEITIA

**IRENE ALTUNA**  
DENTONIA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87  
www.dentonia.com



**AZKOITIA**  
ERLOJU  
KONPONKETAK

Arana, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



**KIRURI**  
JATETXA

Loiola hiribidea, 24  
LOIOLA - AZPEITIA

Tifinoa: 943 81 50 08  
Faxa: 943 15 03 62



**Tuba**  
ehelkularitza

Anakularitza  
liburua  
komunikazioa  
komunikazioa

Gestioi lanak  
Finanzen administrazioa  
Gestio imobiliarria

Tel: 943 157 329 Faxa: 943 157 329  
Ezkerreko aldean: 49 - 1. lantzeratuak@tuba.com



**Ekain**  
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943-15 16 40  
Larrialdiak: 688 69 29 51



**JARRI HEMEN**  
ZURE IRAGARKIA!



**Aiertza Autoak**  
Behar duzun konfiantzazko lantzerat!

Marka guztietako  
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15  
AZPEITIA  
aiertza@aiertzaautoak.com



**CITROËN** EuroZifer EUROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA



**adi**  
AJATE ETA  
DISEINU  
ERKOLA  
ELKARTEA

**Marraskia eta eskulanak**  
(haurrak) 17:30 - 19:00

**Pintura** 16:00 - 17:30  
(helduak) 19:00 - 20:30

**Talla** 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3  
943 81 29 08  
www.adisainu@gmail.com  
Matrícula urte osoan zabalik



**IKA**  
lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak

Urteko: 618 96 49 95 / Jun: 649 12 02 71  
ikaargilanaie@gmail.com www.ikasistemak.com  
20730 AZPEITIA



"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO**  
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urteko: 943 81 57 81

# Animatzen al haiz?



IHINTZA ELUSTONDO

**A**skok ez dute izango nik daukadan zortea: etxean eta kalean, berdin-berdin jolasean, eskolan, lanean, borrokan eta bakean. Denean aritzen naiz euskaraz. Telefono konpainietako dei amorragarriak erantzutea tokatzen denean, oporretan nabilenean eta beste zenbait salbuespen egoeratan izan ezik, ia ez dut gaztelania erabili ere egiten. Egia esan, ia ahaztu ere egin zait. Hori bai, aitortu behar dut Azpeitian gehienbat euskaraz bizi garen arren, ikus-entzunezkoak nahiz literatura erdaretan kontsumitzera behartuta gaudela sarri, eskaintza zabalagoa delako hizkuntza arrotzetan, Uemaren azken ikerketak baieztatu duenez.

Gehien-gehlenbat euskaraz bizi naizen arren, urtero bezalaxe, Euskaraldian izena eman dut, txikitik gauza handiak lortzen direla sinetsita, denok geure alea jartzea delako bidea.

Dena den, aurtengoan bada berezitasun bat gurean. Euskaraldiaren barruan, Hikaldia antolatu dute. Eta hara! Hortxe sartu zait barne borroka. Gurasoek hitanoa erabiltzen dute, ni baino zaharragoak diren lankideek ere bai, nire adineko mutilek ere bai... Baina zer gertatzen da nire adineko neskekin? Gehienek jakin badakigula –zalantza gehiagorekin edo gutxiagorekin–, baina gutxik erabiltzen dutela. Hitanoa ezagutzen duen baina erabiltzen ez duen lehen belaunaldia da gurea. Ni baino urte batzuk gutxiagoko zenbait neskek aitortu didate beraiek ez dakitela. Beraz, argi dago zein den norabidea: bide honetatik jarraituz gero, gure hurrengo belaunaldia ez da hitz egiteko gai ere izango.

Bada atentzioa ematen duen kontu bat. Azpeitiko kaleetan, ia mutil guztiek darabilte hika beren artean, baina neska bati zuzentzerakoan, askok hika egiten jarraitzen dute, nokara aldatu beharrean. Galanta izango da, baina halakoetan beti emakumeak galtzaile; sekula ez dut ikusi alderantzizkorik. Nola salatzen duen hizkuntzak gizartearen bidea.

Baina badira hitanoa zuzen asko darabiltenak ere, izan mutil ala neska; tokatzen denean noka eta tokatzen denean hika erabiltzen dutenak, inolako zalantzarik egin gabe erregistroz aldatzen dutenak. Zer gertatzen da, ordea, halako pertsonaren batek eta hitanoa erabiltzen ez duen beste batek elkarrizketa bat hastean? Sarri-askotan zugarako bidea hartu ohi dutela.

Eta pena da, Azpeitia bezalako arnasgune batean askok dakitelako hitanoa erabiltzen, baina praktika, soltura, falta zaiela. Ni dagoeneko hasi naiz lankide batzuekin praktikan jartzen, sekula noka hitz egin ez dudana pertsonekin erregistro hori erabiltzen. Esaten didate deiadarka bezala hitz egiten dudala, keinu arraroak egiten ditudala. Ez dakit tximu itxura-edo zer hartzen didaten. Bueno, ba nonbaitetik hasi beharko da, ezta? Ez al da ba ohiturak aldatzea Euskaraldiaren helburua?

Aspaldi esan zuten hizkuntza bat ez dela galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik.

Eta hi, animatzen al haiz? ■■■

**HITANOA EZAGUTZEN  
DUEN BAINA  
ERABILTZEN EZ DUEN  
LEHEN BELAUNALDIA  
DA GUREA**

# Mohammad Rafi: "Euskal Herrian bizitzeko jakin egin behar da euskara"

TESTUA ETA ARGAZKIA: **IHINTZA ELUSTONDO**

Mohammad Rafi (Chandala, Pakistan, 1995) Euskal Herrian bizi da 2010. urteaz geroztik. 14 urterekin utzi zuen sorterrria; lehenik, Zestoan bizi izan zen, eta egun, Azpeitia du bizilekua. Familia, lana eta kriketa dira haren eguneroko zimenduak.

## **Primeran hitz egiten duzu euskaraz. Non ikasi duzu?**

Urola Ikastolan. Lehenik, irakasle berezi bat jarri zidaten euskara ikasteko, hiru-lau hilabetez, eta gero, eskolak normal jasotzen hasi nintzen. DBHko 3. mailan nengoen orduan. Inguruko jendeak asko lagundu dit, eta gaur egun, ondo moldatzen naiz euskaraz.

## **Zer egin zenuen ikastolako bidea amaitzean?**

Bi urte eta erdi egin nituen Urolan, eta gero, Elgoibarko [Gipuzkoa] Mekara joan nintzen. Elektromekanika eta karrozeria ikasi nituen han. Ordutik, ogibide ezberdinetan aritu naiz, eta egun, herriko tailer batean aritzen naiz lanean. Asteburuetan, berriz, kriketea jokatzen dut.

## **Pakistandar asko aritzen zarete kirol horretan. Zuen kulturaren ohikoa al da hori?**

Pakistanen ez dira futboleko-eta ibiltzen, han ez daude Euskal Herrian bezainbeste futbol zelai. Pakistanen ia denoi gustatzen zaigu kriketa; hemen futbola den bezala da han kirol hori. 2010ean iritsi ginen hona, eta ordutik, urte batzuetan jende gehiago eta besteetan gutxiago elkartu izan gara kriketea jokatzeke. Gaur egun, Azkoitiko eta Azpeitiko jendea elkarrekin aritzen gara, eta pixkanaka, ari da berriro indarra hartzen kriketa. Igandeetan, normalean, 40-50 lagun elkartzen gara Goenan, eta ederki pasatzen dugu. Orain, gainera, paletan ere aritzen gara. Urrestillako frontoian elkartzen gara astelehen edo astearte gauean, eta pala txapelketa antolatzea pentsatzen ari gara.

## **Mutilak bakarrik ibiltzen al zarete kriketean, ala neskek ere aritzen dira zuekin?**

Momentuz, neskek ez dira ibiltzen; Pakistanen ez, eta Euskal Herrian ere ez. Dena den, emakumeen kriketeke talde nazionala sortu dute Pakistanen, futboleko ere bai, hockeyko... Pixkanaka, ari da

kiroletan emakumeen presentzia areagotzen.

Baita hezkuntzan ere; gero eta emakume gehiago joaten dira unibertsitateera.

## **Azpeitian Pakistango jende asko bizi al da?**

Bai, eta gehienak gure familiakoak dira, gainera. Pakistango Chandala herrikoa naiz ni, eta hango herritarren %60-80 Azkoiti-Azpeitian bizi dira egun. Ia herritar guztiok inguruan gaude. 1999an etorri zen gure aita Euskal Herrira, eta gero, gainontzeko familia guztia. Gaur egun, ezkondata nago, eta alaba bat daukat.

## **Zergatik alde egiten du hainbeste jendeak Pakistandik?**

Hobeto bizitzeko. Lan asko egin eta gutxi kobratzen da han. Ikasketarik ez baduzu, diru gutxi irabazten duzu, gobernuaren lanpostuak eskuratzen ez badituzu behintzat. Orain ari da egoera pixka bat aldatzen, baina orain arte oso atzerakoia izan da Pakistan. Pixkanaka, hasi dira ikasteko erraztasunak jartzten, eta gero eta jende gehiagok egiten ditu unibertsitateko ikasketak. Eta ikasita, diru gehiago irabazten duzu. Hori horrela, egun jende gutxiagok uzten du herrialdea.

## **Zer moduz bizi zara Euskal Herrian?**

Zoragarri, han baino hobeto. Ondo egokitu naiz, eta gustura bizi naiz hemen.

## **Zerbaiten falta sumatzen al duzu?**

Familia guztia elkarrekin gaude Euskal Herrian, eta oso pozik nago.

## **Zure ustez garrantzitsua al da Euskal Herrian bizitzeko euskara ikastea?**

Hemen bizitzeko derrigorrez ikasi behar da euskara. Pakistanen ere bi hizkuntza hitz egiten dira, eta han ere bat jakinda ez da nahikoa; biak menperatu behar dira. Ez zait ondo iruditzen Euskal Herrian bizi eta gaztelania bakarrik ikastea. Izan ere, euskara baldin badakizu, medikuarenera joateko, adibidez, ez diozu inori laguntzeko eskatu behar. Uste dut hemen bizitzeko jakin egin behar dela euskaraz, ia leku guztietan euskaraz egiten delako. Eskutitz formalak-eta bi hizkuntzetan iristen dira etxera, baina kalean euskaraz bizi da jendea. ■





## Mugekin amesten



**ARGAZKIA ETA TESTUAK:** HAIZEA SALEGI

Izango banitu eta izango  
banintz,  
zeinen erraz amesten dugun  
ezinezkoa zaigun horrekin.  
Ez daukaguna nahi,  
dugunarekin konformatzea  
lan zail.

Hankak lurrean ditugu, bai,  
baina gora begiratzeko  
dugunean,  
buruak ez du mugarik zeru  
zabalean.  
Noraino dugu posible  
gure irudimena luzatzea?

Horregatik amesten dut nik,  
ezinezkoak zaizkidan nahiekin,  
badakidalako egunen batean,  
burutazio horiek guztiak  
haizeak eramango lituzkeela,  
izango banitu hegoak  
eta izango banintz txori. ■■■







# Dikotomia

**B**adugu gauzak bitan multzokatzeko ohitura: zuria/beltza, txarra/ona, altua/baxua. Nik ere aspalditik dut pertsonak taldekatzeko nire irizpidea. Batetik, gosariak disfrutatzen dutenak daude, eta bestetik, goizean lo gehiago egiteko janariari muzin giten diotenak. Non sartzen zara zu?

Ni, zalantzarik gabe, lehenengo taldekoa naiz: gogoko dut jatea. Elikatu behar delako jaten dutenak badiren arren, niretzat plazera da hori. Plateraren aurrean denbora hartzea eta gozatzea ederra da. Gaur goizean ere halatsu ibili naiz. Etxean isiltasuna zen nagusi, kanpoan, berriz, udazkeneko egun argi haizetsua; galtza motzak jantzi eta terrazan gosaltzeko primerakoa.

Hozkailua eta armairua ireki eta itxi, itxi eta ireki, atera ditut bi laranja, pomeloa, limoia, urdaiazpikoa, ahukatea, gazta eta antxoak. Bizilagunak eginiko atzoko ogia xigortzen zegoen bitartean ekin diot zukua egiteari. Itxura txukuna hartu du mahaiak; tostadek kolore polita zuten, eta zuku freskoak ere ongietorria egin dio egunari. Tragoa batetik, hortzaka bestetik.

**TXOTXONGILOAK  
DIRUDIGU. BERAIEK  
JARTZEN DITUZTE  
ARAUAK, BAINA GUREA  
DA ONDORIOEN ERRUA.**

Lasai hasi dut eguna, baina barrua bor-bor jarri zait bat-batean. Ontziak garbitu eta jaso, soberakinak zakarretara bota, bazen zer egina. Fruta azalak bata bestearen gainean Pisako dorrearen tankeran ipini eta braust bota ohi ditut zakarrontzira. Gaur, goitik behera zihoazela, zerbaitek diz-diz egin du nire begi-bistan. Hara! Frutek izan ohi dituzten eranskailuak kentzea ahaztu zaidala konturatu naiz. Tamalez ez da lehenengo aldia, eta amorratu egin naiz. Frutek daramatzaten pegatina horiek paper jangarriz eginak izan behar dutela dio legeak, baina jangarriak izateak ez du esan nahi konpostagarriak direnik. 2022. urtean, gizarte aurreratu eta kontzienteaz bolo-bolo dihardugunean, hainbat paper eta plastiko konpostagarri

HAUXE BAI JENEROA!



eskura izanda, nolatan ez dituzte gure goiko buruargiek zenbait lege aldatu? Ziur bainaiz ez naizela fruta eta barazkien eranskailuek organikoaren ontzira ihes egiten dien bakarra.

Sentimendu bertsua izan nuen duela hiru urte, Argentinara egin nuen bidaian. Punta-puntako turisten gisan, ni ere iritsi nintzen Perito Morenora. Glaziarrerako itsas bidaiak ziren Calafateko eskaintzen artean ezagunenak; hori hala, guk ere ekin egin genion zeharkaldiari. Gustuko dut txamarra potolopean nagoela sudurra hotz sentitzea, gogoko dut natura mantu zuriz jantzita ikustea, begiko dut itsasoaz zein mendiaz gozatzeta; eta Peritorako bidaia hark aukera guztiak eskaintzen zizkidan.

Kranpoiak jantzi eta ibilaldia egin genuen izotzezko mendian, kraxk, kraxk, kraxk! Besterik ez zen entzuten bide osoan. Ederra isiltasuna, ederra freskotasuna, ederra paisaia; esperientzia bikaina izan zen. Bueltako ferria hartu eta herrira bidean, ordea, zapore gazi-gozoa hartzen hasi zen bidaia. Bizimodu jasangarriagoa nola eraiki ikasten ari garen garaian, urtzen ari den izotz masan krixki-kraxkaka ibilaldia egin nuela pentsatzea ere! Egun izugarria izan zen, baina nolatan eman zidaten hori egiteko baimena? Nork baimendu zuen? Edo nork ez zuen saihestu?

Txotxongiloak dirudigu. Beraiek jartzen dituzte arauak, baina gurea da ondorioen errua. Haiek eta gu. ■■■

## HAN ETA HEMEN



HIROMI YOSHIDA

### Ohitura txarra?

**A**skotan aditu izan ditut euskaldunak honelako kontuak esaten: "Eman dezagun bost lagun euskaraz ari garela eta hor azaltzen dela lagun erdaldun bat. Orduan berehala pasatzen gara erdarara. Hori bai dela ohitura txarra!". Ez zait iruditzen ohitura txarra denik, baina hona hemen nire duda: "Bost lagun euskaraz ari dira; horietako batek, X-k ez daki erdaraz. Eta hor azaltzen da Y, lagun erdalduna; kasu horretan ere erdarara pasatuko al dira beste laurak?". Ez da oso kasu erreala, baina gerta daiteke. Nire hipotesisak:

1. Lau lagun eta X-ren eta Y-ren arteko harremanak nolakoak diren; horren arabera hautatuko da hizkuntza. X ezgutu berri badute, eta Y, berriz, lagun handia bada, erdarara pasatuko dira aspaldiko laguna ez baztertzearren. Baina alderantziz ere gertatuko da.

2. Zeinek ateratzen duen mintzagaia; Y-k ateratzen badu, erdaraz arituko dira naturalki. Baita alderantziz ere.

3. Eta beste faktore bat okurritu zait. Elebidunak diren lau lagunek, nahiz eta euskaraz jakin, erdaraz erraztasun handiagoa badute, Y etorri delako aitzakiapean pozik pasa daitezke erdarara.

Ba, horrela, kasu asko izango dira, eta ez naiz aspertzen horretan pentsatzen. ■■■



# "Pentsatzen ez dugun gauza askoren atzean dago matematika"

**AMAIA IPARRAGIRRE** MATEMATIKARIA

Amaia Iparragirrek Matematika ikasi zuen EHUUn, eta gaur egun, doktore tesia egiten ari da, unibertsitate berean. Eredu aurrealeen garapena eta balidazioa ari da lantzen, laginketa konplexutik lortutako inkestetako datuentzat. Era berean, irakaslea da EHUUn; estatistikari lotutako irakasgaiak ematen ditu. Testua: **Ihintza Elustondo**. Argazkiak: **Ihintza Elustondo eta utzitakoak**.

**M**atematikek ez dute askoren irakasgai gustukoena izateko fama, baina Amaia Iparragirrek (Azpeitia, 1994) horixe atsegin du txikitatik. Matematikako gradua ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean; ondoren, estatistikari lotutako master bat egin zuen, eta egun, doktore tesia egiten ari da, unibertsitate berean. Ikasle eta aldi berean irakasle ere bada; izan ere, estatistikari lotutako irakasgaiak ematen ditu Matematika eta Biologia graduetan, EHUUn bertan.

**Matematikek ez dute jende askoren gustuko gaia izateko ospea. Zer dela-eta erabaki zenuen ikasketa horiek egitea?**

Irakasgai guztien artean, niri beti matematika gustatu izan zait gehien; txikitatik. Gure ama ere matematikako irakaslea zen ikastolan, eta ez dakit horrek zerikusirik ote duen... Uste dut lasai esaten dugula matematika ez zaigula gustatzen, baina beldur gehiago ematen digu beste irakasgai batzuk ez zaizkigula gustatzen esateak. Batxilergoan zientziaren bidea hartu nuen, eta gero, zalantzak izan nituen zer ikasi erabakitzerakoan. Izan ere, matematika gustatzen zitzaidan, baina horrek ez du esan nahi

Matematikako gradua ikasi behar nuenik. Azkenean, animatu egin nintzen.

**Eta sorpresa ona hartu al zenuen?**

Bai. Askok esaten dute Batxilergoko matematikak eta Matematikako graduak ez dutela zerikusirik, eta egia esan, oso ezberdinak dira. Izan ere, unibertsitatean askoz ere modu abstraktuagoan lantzen da matematika. Dena den, niri hasieratik asko gustatu zitzaidan gradua, nahiz eta hasieran denbora pixka bat behar izan nuen egokitzeke.

**Gradua amaitzean, estatistikari lotutako master bat egin zenuen, eta doktore tesia garatzen ari zara egun. Nolatan animatu zinen pauso hori ematera?**

Gradu bukaerako eta master bukaerako lanak irakasle berarekin egin nituen, eta master amaierako lana egiten ari nintzela, irakasle horri Eustateko proiektu bat iritsi zitzaion; datu batzuekin lan egitean zatan egitasmoa. Irakasle hori eta haren lantaldea ez ziren proiektu hori bakarrik garatzeko gai, eta norbait kontratatu behar zuten horretarako. Orduan, analisi horiek egitea nahi al nuen galdetu zidaten. Urtebetez aritu nintzen azterketa horiek egiten, doktoratu gabeko ikertzaile gisa lanean. Datu horiekin lanean hasi nintzenean, arazo eta galdera batzuk sortu zitzaizkigun, eta ikusi genuen metodologia







Iparragirreraren lehen aurkezpena kongresu batean, 2016an, Bartzelonan.



Aucklanden, 2022ko abuztuan.

baten falta zegoela. Behar horretatik abiatuta, tesia egitea erabaki nuen.

**Zer ari zara lantzen tesi horretan? Zure ikerketa arloa ulertzeko, eredu auresaleak zer diren jakin behar da lehen-lehenik. Zer dira?**

Eredu auresaleak estatistikan asko erabiltzen diren ereduak dira. Horien helburua da, behatu diren datuetan oinarrituta, etorkizunean zer gertatuko den auresatea edo aurreikustea. Eredu auresaleak arlo ezberdinetan aplikatzeko

helburuarekin sortzen dira; besteak beste, asko erabiltzen dira medikuntzan. Esaterako, ospitalera iristen den paziente batek dituen sintomak kontuan izanda, eredu auresale batek lagun dezake ingresatzea komeni den ala ez erabakitzen. Beste paziente batzuek ere antzeko sintomak izan dituztenez, aurreikusi daiteke haren arrisku maila. Halako kasuetarako erabiltzen dira eredu auresaleak, eta praktikan erabiltzen direnez, ereduek onak izan behar dute, aplikagarriak.

**Eta nola garatu eredu onak?**

Eredu aplikagarriak sortu ahal izateko, hainbat pauso jarraitu behar ditugu: eredu estimatu, ereduak kontuan izatea nahi dugun aldagaiak edo ezaugarriak aukeratu, ereduaren auresateko gaitasuna neurtu... Eta amaitzeko, horiek datu berrietan aplikatuta ondo funtzionatzen duten edo ez aztertu. Nire doktore tesian, inkestetako datuei garatu nahi zaizkie eredu auresale horiek. Normalean, inkestak egiten ditugunean, populazio jakin bati galdetegi bat egitea izaten da helburua. Dena den, ezin zaio inkesta hori populazio guztiari egin, eta horregatik, lagindu egiten da populazioa. Lagin horrek galdetegia betetzen du, eta horien bidez bildutako informazioarekin, helburua izaten da populazioaren gaineko informazioa auresan ahal izatea; horretarako baliatzen dira eredu auresaleak.

**Bide horretan, arazoren bat sortu ohi da, ordea.**

Bai, populazio horretatik lagina nola ateratzen den da kontua. Milako populazio batean zoriz aukera daiteke ehun pertsonako lagina, edo laginketa hori modu ezberdin batzuetan egin daiteke, laginketa diseinu konplexuago bat jarraituz. Adibidez, populazio horretan zenbait bereizketa egin daitezke: genero bereizketak, adinari lotutakoak, jatorriari dagozkionak... Hau da, intereseko ezaugarriak kontuan hartuta, ezaugarri horiek dituzten zenbat pertsona, ale edo indibiduo aztertu nahi ditugun erabaki dezakegu. Guk nahi ditugun azpitalde denak ondo ordezkaturata egotea lortuko genuke horrela. Zer gertatzen da, ordea? Gerta daiteke azpitalde horietako batzuk behar baino gehiago lagintzea; hau da, zoriz hartuko genituzkeena baino indibiduo gehiago hartzea laginerako. Ondorioz, lagindutako indibiduo bakoitzak pisu ezberdina izango du; populazioan ordezkatzan dituen indibiduo kopuruaren arabera pisua, hain zuzen ere. Adibidez, hogeit hamar pertsonako talde



Star Wars estatistikaren dibulgazio ekitaldian, 2019ko martxoan, Leioan. IRANTZU BARRIO

## "ETORKIZUNEAN ZER GERTATUKO DEN AURREIKUSTEA DA EREDU AURRESALEEN HELBURUA"

## "IRAKASLEA NAIZ, ETA DOKTORE TESIA EGITEN ERE ARI NAIZ; UNE HONETAN BI GAUZAK EGITEN DITUT"

## "EZ DUT USTE NAHITAEZ KANPORA JOAN BEHAR DENIK IKERKETAREN ARLOAN ARITZEKO"

batetik lau lagintzen baldin baditugu, lagindutako lau pertsona horien pisua bost izango da, guztira beren taldeko hogeit hamar pertsona ordezkatzeko dituztelako. Aldiz, lau pertsonako talde batetik bi lagintzeko baldin baditugu, lagindutako bi horien pisua bi izango da. Pisu horiek kontuan hartu

behar dira eredu aurrealeak garatzerakoan, bestela arazo batzuk sortuko lirakeelako prozesuan; alborapen arazoak, besteak beste. Kontua da eredu aurrealeak garatzerakoan laginketa diseinu konplexu horiek kontuan hartzeko metodologia ez dagoela guztiz garatuta. Hau da, eredu aurreale horiek zoriz hartutako laginketetara doitu dira orain arte, batez ere. **Beraz, zorizko laginentzako garatutako metodologia edo laginketa diseinua kontuan hartzen duen metodologia baliatuz gero, aldaketak egon daitezke emaitzetan.**

Hori da, eredu ezberdinak lortuko genituzke. Bukaeran lortuko genukeen eredu hori ez litzateke berdina izango laginketa diseinua kontuan hartuta edo kontuan hartu gabe. Eta hobeto da diseinua kontuan hartuta egitea. **Zer fasetan dago une honetan zure tesia?** Bukaerako fasea falta da. Doktore tesirako jarri genituen helburuak bete ditugu nolabait, eta orain ondo dokumentatzea eta txosten batean dena ondo idaztea falta da. Gainera, software estatistikoa garatu nahiko genuke, guk sortu dugun metodologia hori gero beste batzuek erabili ahal izateko. Eta, azkenik, defentsa egin beharko dut. Nahiko nuke 2023 bukaerarako dena idaztea eta 2024. urtearen hasieran-edo defentsa egitea.

**Zeelanda Berrian garatu duzu tesiaren zati bat. Zertan aritu zara han?**

Lehenik, Bartzelonan egon nintzen bi hilabetez, tesian sartuko den gai bat lantzen, Universitat Politecnica de Catalunyaeko Guadalupe Gomez Melis ikertzailearekin. Horrez gain, hiru hilabetez egonaldi bat egin berri dut, Zeelanda Berrian. University of Aucklanden izan naiz, inkesta konplexuen eremuan lan egiten duen ikertzaile batekin; Thomas Lumley izena du hark. Nire tesi zuzendarietako batek kongresu batean ezagutu zuen Lumley; zuzendariak esan zion zion berak lan egiten duen arlo berean ari ginela lanean, eta ikasle batek berarekin lan egiteko interesa zuela. Hasieratik esan zuen baietz. Berez, 2020an joan behar nuen Zeelanda Berrira, baina pandemia tarteko, atzeratu egin zen kontua. Azkenean, ireki dituzte herrialde horretako mugak, eta aurten egin ahal izan dut egonaldia. Uztailean joan nintzen hara, eta urrian itzuli.

**Zer moduzko esperientzia izan da?**

Oso ona, bai profesionalki, bai pertsonalki. Profesionalki, asko ikasi dut Lumleyrengandik. Laginketa konplexuko inkesten arloa asko landu du hark, eta niretzat sekulakoa izan da gai

horretaz hainbeste dakien pertsona batekin lan egitea. Ondo egin dugu lan elkarrekin, eta biok gustura gelditu gara lortutako emaitzarekin. **Eta pertsonalki, zer moduzko esperientzia izan da?** Sekulakoa, baita ere. Egia da ezin izan dudala asko bidaiatu, lanean aritu naizelako, baina saiatu naiz asteburu batzuetan inguruko lekuak ezagutzen. Iparraldeko nahiz hegoaldeko iriak bisitatu ditut, eta denak oso politak dira. Sumendiak, mendiak, lakuak... ikusi ditut, eta mundiala izan da. Dena den, oraindik pandemiaren ondorioak nabariak dira Zeelanda Berrian; joan nintzenez beharrezkoa zen maskara erabiltzea, eta ni bueltatzerako kendu dute derrigortasuna. Agian, horixe izan da txarrena. Eta bestela, jendea oso jatorra iruditu zait. Lekua sekulakoa da, baina gehiena harritu nauena jendearen jatorrasuna izan da. Kanean nindoala, jendeak irribarre egiten zidan, eta Euskal Herrira itzultzean, arraroa egin zait hori; izan ere, hemen jendeak ez du hori egiten [barreak].

**Ez al zaizu gogorra egin esperientzia? Doktore tesiek hala izateko fama dute...**

Ordu asko sartu ditut han lanean, baina Euskal Herrian baino askoz ere gutxiago. Izan ere, irakaslea ere banaiz EHU; Matematika eta Biologia graduetan ematen ditut klaseak. Zeelanda Berrian tesira bakarrik bideratu ditut indarrak, han ez dut izan irakaskuntzako ardurarik, eta hori pila bat nabaritu dut. Nire tesian oso zentratuta egon naiz hiru hilabetez, eta alde horretatik, lasaia go ibili naiz.

**Noiztik aritzen zara irakasle?**

2019ko ekainean hasi nintzen doktore tesia egiten; orduan lortu nuen beka. Aldi berean, irakasle aritzeko lan poltsan nengoen, eta bost urteko ordezkapen bat egiteko aukera iritsi zitzaidan. 2021eko otsailean izan zen hori, eta beka utzi eta baiezkua eman nion irakasle aritzeko aukerari. Kontua da orain bi gauzak bateratu behar ditudala; irakaslea naiz, eta doktore tesia egiten ere ari naiz.

**Etorkizunean irakaskuntzan aritzea nahiko al zenuke?**

Bai, gustatuko litzaidake. Lehen ere horregatik egin nuen beka uzteko apustua. Egia da lan asko egin behar izaten dudala egun, irakasle lana eta doktore tesia bi ardura handi direlako, baina oso gustura ari naiz.

**EHUko irakasleak ikerketan ere aritzen zarete, ezta?**

Bai, bi arloak uztartu ohi ditugu; irakasle izanagatik, ikertzaile ere izan ohi gara. Gainera,

irakasle gisa postu finkoak lortu ahal izateko, ikerketan jarraitzea, artikulua argitaratzea... eskatzen dute. Egia esan, asko gustatzen zait ikerketaren mundua; nire helburua ez da soilik irakaslea izatea. Ikerketak une oro jakintza arloa zabaltzen laguntzen dizu, eta komeni da eguneratuta egotea. Uste dut guztiz bateragarriak direla bi arloak, eta izan egin behar direla, gainera.

**Zer ematen dizu irakaskuntzak?**

Nolabaiteko feedbacka jasotzeko aukera. Une honetan ikaslea eta irakaslea naiz, eta oso gertu sentitzen naiz ikasleengandik. Orain dela ez hainbeste urte ikaslearen aulkian nengoa, eta atsegin nuen irakasleak egiten ari zena gustatzen zitzaizola transmititzea. Ni gauza bera transmititzen saiatzen naiz orain. Zure lana gogoz egiten baduzu, uste dut ikasleek ondo erantzun eta eskertu egiten dutela. Alde horretatik, oso gustura nago. Eta irakaskuntzak, aldi berean, ikasleekin batera ikasteko aukera ematen dit; haien zalantzak entzuteak gauzei beste buelta bat ematera bultzatzen naute. Esaten da gauza bat ez duzula guztiz ulertzen azaltzen dakizun arte, eta ariketa bat da jendearen aurrean jartzea eta zer egiten duzun azaltzea.

**Matematikarena askotan ulertzeko mundu abstraktua egiten da. Zertan da aplikagarria, adibidez, zu lantzen ari zaren hori?**

Gaur egun, eremu pila batean erabiltzen dira eredu auresaleak. Lehen medikuntza aipatu dut, baina beste arlo askotan ere baliatzen dira: enpresa batek interesa eduki dezake makina batek zenbateko biziraupena izango duen jakiteko, biologian ere erabiltzen dira askotariko gauzak auresateko, banketxeek baliatu ohi dituzte mailegu bat ez itzultzeko zer aukera dauden aurrekusteko, kirol lesioak auresateko ere balio dute, Google Mapsek ere esaten dizu leku batetik bestera zenbat denboran iritsiko zaren... Halakoak aurretik jasotako datuen bidez aurrekusten dituzte, eta horien zerrenda ere eredu auresaleak daude. Egundoko zerrenda osa daiteke. Nolabait, aurretik esan nahi dugu zer gertatuko den; horretarako dira eredu auresaleak. Bestalde, laginketa berezi horiek gero eta eremu gehiagotan erabiltzen dira, besteak beste, asko erabiltzen dira estatistika ofizialean, Eustatek-eta egiten dituzten ikerketetan. Uste ez dugun gauza askoren atzean daude eredu auresaleak; pentsatzen ez dugun gauza askoren atzean dago matematika.





**Zientzialari asko kanpora joaten dira lanera, aukera hobeen bila. Zuk Euskal Herrian ikusten al duzu etorkizuna?**

Hemen ere egiten da ikerketa, eta kalitatezko ikerketa, gainera. Eta egin daiteke. Atzerrian badaude zientziaren arloan ibilbide luzeagoa eta esperientzia handiagoa duten beste unibertsitate batzuk, baina ez dut uste nahitaez kanpora joan behar denik ikerketaren arloan aritzeko. Hemen ere egiten da kalitatezko ikerketa.

**Zientziaren munduan, gero eta gehiago al zarete emakumeak?**

Horretan sekulako zortea daukat; izan ere, emakume asko daukat inguruan. Askok hitz egiten da emakume erreferenteei buruz, eta askotan Marie Curie eta beste izen batzuk aipatzen dira. Baina, nire ustez, garrantzitsua da gertuko erreferenteak edukitzea. Nik horretan sekulako zortea daukat; nire bi tesi zuzendariak emakumeak dira, eta beraiek animatuta hasi nintzen ikerketaren munduan murgiltzen. "Beraiek egin baldin badute, nik zergatik ez?", pentsatzen nuen. Tesi zuzendarietz gain, lan harremanak ditugun Espainiako Estatuko beste pertsona asko ere emakumeak dira, eta emakume ugari inguratuta nago ni. Niri ez zait tokatu gizonez inguratutako

mundu bat; ni aritzen naizen arloan, agian, zientziaren beste adar batzuetan baino emakume gehiago aurkitzen dira. Askok laguntzen du inguruan hainbeste emakume egoteak.

**Zer esango zenioke matematika ikasi edo ez zalantzan dagoenari? Mundu polita al da?**

Nire ustez, oso polita. Atzera bueltatu beharko banu, berriro Matematikako gradua ikasiko nuke. Gradu horretan ikasten duzuna gauza askotan aplikatu daiteke, eta horrek bide pila bat irekitzen ditu. Arlo askotan lan egin daiteke ikasketak amaitzean: teknologian, informatikan, osasun arloan, beste zientzia batzuetan, enpresetan... Gauza askoren atzean dago matematika. Eta ez da ikasten duzun materia bakarrik; Matematikaren graduan ikasten eta pentsatzen ikasten dugu, eta hori da gero lan munduan baloratzen dena. Nire ustez, oso zientzia polita da matematika, baina dena bezala, gustatu egin behar zaizu. Askok esaten dute gradu zaila dela, baina beti esaten dut niretzat askoz ere zailagoa izango litzatekeela Arte Ederrak ikastea. Esfortzua eskatzen du Matematika ikasteak, orduak sartu behar dira, baina gogoa daukana animatu egingo nuke. Gradu exijentea izan daiteke, baina esfortzuak merezi duela uste dut. ■■■



# Pantailak, kezken ispilu

Ikasleen ikus-entzunezko kontsumoari buruzko ikerketa egin du Uemak udalerrri euskaldunetan, tartean Azpeitian. Ikasle hainbatek bete dituzte inkestak, eta eragileek zituzten kezkek berretsi dituzte horien emaitzek: erdarak dira nagusi ikus-entzunezko eskaintzan eta kontsumoan, euskararen kaltetan. Kontzientziazioan eragiteko eta ardurak hartzeko beharra azpimarratu dute Uemak eta herriko ikastetxeek. Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Unsplash**.



**I**kus-entzunezko kontsumoari buruzko kezka ez da gaur goizekoa; gaia agendaren lehen lerroan kokatu da azken urteetan. Izan ere, zer kontsumitzen dute haurrek eta nerabeek telebistan? Zer sare sozialetan? Zein da ikus-entzunezkoen hizkuntza nagusia? Eta zein da horietan euskarak duen presentzia? Zer egin daiteke euskarazko edukien kontsumoa areagotzeko? Eta norena da hori sustatzearen ardura? Kezka horietatik guztietatik abiatuta, ikus-entzunezko kontsumoari buruzko ikerketa bat gauzatu du Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (Uema) udalerrri euskaldunetan. Hain zuzen ere, Lehen Hezkuntzatik Batxilergora bitarteko ikasleek, hau da, 10 eta 18 urte bitartekoek, galdetegiak bete dituzte ikastetxeen bidez, eta Azpeitia da azterlana egin duten herrietako bat.

Azpeitiko Ikastola Ikasberriko, Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegaraiko, Iraurgi Ikastetxeko nahiz Urola Ikastola BHIko ikasleek erantzun dituzte inkestak; Lehen Hezkuntzan baliozko 331 galdetegi jaso dituzte, eta DBHn zein Batxilergoan, 730. Batetik, ikasleek beren hizkuntza ezaugarriei buruzko galderak erantzun dituzte, eta bestetik, ikus-entzunezko kontsumoaren ingurukoak. Izan ere, Goizane Arana Uemako teknikariak azaldu duenez, ikastetxe askotan





sortu du kezka haurren hizkuntza ohiturak aldatzen ari direla ikusteak eta horiek gaztelaniaz hitz egiten gero eta lehenago entzuteak: "Hainbat faktore ari dira eragiten ohitura horietan, eta tartean daude ikus-entzunezkoak". Hark azaldu duenez, errealitatea datuen bidez aztertu nahi zuten, analisi "sakonagoa" egiteko.

Azpeitiko ikasleen hizkuntza profilari erreparatuta, euskara da horiek egunerokoan alde nabarmenez gehien erabiltzen duten hizkuntza. Udalerrri euskaldunetan egin dute azterlana, eta beraz, azterketa egin duten herritar multzoaren hizkuntza nagusia euskara da. Dena den, Aranak azaldu duenez, azterketan bildutako datuak ez dira Euskal Herri osora hedatzeko modukoak; izan ere, haren arabera, "bestelako egoera batean" bizi dira Euskal Herriko euskaldun gehienak. Hala ere, udalerrri euskaldunetan ere hedatzen ari den "bi hizkuntzen fenomenoan" jarri du arreta: "Kontuan izan behar da udalerrri euskaldunetan aldaketa handiak izan dituela biztanleriak. Gurasoen profila aldatu egin da, eta horrek hizkuntzaren transmisioan eragin ditu aldaketak; bikote elebidunak ugaritu egin dira, baita euskara bigarren hizkuntza duten gurasoak ere. Halakoetan, bi hizkuntzak transmititzeko joera ikusten da, eta ikus-entzunezkoen eragina ere hor dago, etxean euskaraz hitz egin arren, pantailetan erdara delako nagusi eta haurrek hori erreproduzitzen dutelako".

#### **Hizkuntza profila eta kontsumoa**

Hizkuntza profila eta ikus-entzunezko kontsumoa aztertu ditu Uemak ikerketarekin, eta bi horien artean aldeak badirela ondorioztatu ahal izan dute. Izan ere, ahozko erabileran euskara da





**"GAZTEEK ERDARARA  
JO BEHARRA DAUKATE  
TELESAILAK IKUSI EDO  
BIDEOJOKOETAN IBILI  
NAHI DUTENEAN"**

**"HUTSUNEA AGERIKOA  
DA, ETA ESKOLETAN  
NABARITU EGITEN DA  
JOERA: UMEEN  
ERREFERENTZIAK..."**

haurren eta nerabeen hizkuntza nagusia, baina pantailetan erdara. Badira, ordea, ñabardurak, Aranak adierazi duenez: "Euskara eguneroko hizkuntza nagusia duten ikasleek gehiago jotzen dute euskarazko edukietara. Alde horretatik, esan daiteke badagoela eguneroko jardunaren eta pantailen arteko lotura bat. Horrek ez du esan nahi, baina, egunerokoa euskaraz egiten dutenek pantailan ez dutenik erdarara jotzen". Kontsumoaz haratago, ikus-entzunezkoen eskaintzari erreparatu behar zaiola uste du. "Gazteek telesailak ikusi nahi dituztenean edo bideojokoetan ibili nahi dutenean, erdarara jo beharra daukate, euskaraz ez dagoelako eskaintzarik".

Kontsumo datuetara jota, bada aldea Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean: Azpeitiko ikasleek betetako inkestetan adierazi dutenez, bietan ETB1 da gehien kontsumitzen duten telebista katea. Aranak dioenez, "seinale ontzat" hartu behar da datu hori, baina zehaztapen bat egin du, joerari erreparatuta. "Euskaraz egiten duten etxeetan da ETB1en audientzia handiena, baina badago salbuespen bat: *Golazen* telesaila. Izan ere, telesail horrek lortzen du beste profil bateko ikasleak ere erakartzea. LHko ikasleen artean Clan da bigarren kate ikusiena, marrazki bizidunak erdaraz eskaintzen dituen, eta euskaraz bere parekoa izan daitekeenari, ETB3ri, alde handia ateratzen dio". Gogoetarako datua iruditzen zaio hori. "Umeentzat zer-nolako eskaintza dugun, gaur egungo eskaintza erakargarria ote den, Nafarroako haurrek ETB3 ikusteko dituzten zailtasunak... Hutsunea agerikoa da, eta eskoletan nabaritu egiten da joera: zein marrazki bizidun diren umeen erreferentzia, zein imitatzen ari diren lagunartean...".

DBHko eta Batxilergoko ikasleek, berriz, Espainiako hainbat kate kontsumitzen dituzte gehien, ETB1 eta gero, eta Aranek uste du eskaintza dela horren gako ere. "16 urteko gaztetxo batentzat zer eskaintza daukagu? Kantitatean ezin gara lehiatu, erdarazko eskaintza beti izango delako handiagoa eta zabalagoa, baina horrek ez gintuzte paralisira eramane beharko. Galdera bat dago oinarrian: herri gisa, hizkuntza komunitate gisa, zein izango dira gure apustuak ikus-entzunezkoen eremuan?".

Adinak ere badu eragina ikus-entzunezko kontsumoaren hizkuntza hautuan. Joera honako hau da, Aranaren arabera: "Adinean gora joan bezala, handiagoa da erdarazko kontsumoa". Hori ez dela harritzekoa adierazi du hark, haur eta nerabe ez diren herritarren kontsumoan arreta jarrita. "Nolakoa da 25 urtekoen kontsumoa? Eta 50 urtekoena? Euskararen biziberritzean, askotan izan dugu fokua umeengan jartzeko joera, eta ikus-entzunezkoetan ere halako zerbait egin dugu: umeetan egin dugu ahalegina, baina haiek hazten doazen eran, txikiagotuz doa eskaintza".

### **Plataformen eta sareen garaia**

Azken urteetan goitik behera ari da aldatzen ikus-entzunezkoak kontsumitzeko eredua, eta horretan berebiziko eragina izan dute plataforma digitalen sorrerak nahiz sare sozialen ugaritzeak; telebista ikus-entzunezkoen ardatza izatetik bigarren mailara igaro da. Ikus-entzunezko eduki gehiago dago orain, baina Aranek azaldu duenez, batez ere erdarazko eskaintza da hazi dena. "Itsaso horretan, proportzioan, gero eta txikiago ageri da euskara. Youtubean, adibidez, antzeko zerbait gertatu da: eduki mordoa dago, askotariko ikus-entzunezkoak bilatzen dituzte hor ikasleek, baina erdarazko eskaintza da ugariena eta ikusle gehien dituen; euskara apenas ageri da".

Euskara-gaztelania dikotomiatik haratago, ikasleen kopuru handi bat gai da gaur egun telesailak ingelesez edo beste hizkuntza batean ikusteko, eta horrek beste testuinguru bat sortu duela azpimarratu du Uemako kideak. "Erronka ez da euskara ala gaztelania, hizkuntza gehiago baitaude tartean. Eskaintzari erreparatzea iruditzen zait garrantzitsua. Eskaintzak asko baldintzatzen du kontsumoa, eta horretan badago zer egin; euskarazko telesailak behar ditugu".

Sare sozial bakoitzak, gainera, bere ezaugarriak ditu, eta horiek erabiltzen dituzten ikasleen ezaugarriak ere desberdinak dira. Adibidez, Batxilergokoak gehiago ibiltzen dira Instagramen, eta LHkoak zein DBHkoak, berriz, Tiktoken. "Horrek berak ondorioak ditu, eta gainera, sare sozial bakoitzaren ezaugarriak erreparatu behar zaie. Izan ere, Instagramen ingurukoekin dituzte harremanak ikasleek, eta Tiktoken, berriz, zabalagoa da ikuspegia. Horrek aldaketa eragiten du hizkuntza hautuan".

Sare sozialetako euskarazko erreferenteen falta nabarmena da, eta horrek eragina du gaztetxoek sortzen dituzten edukietan, Aranek azaldu duenez. "Nire erreferenteek erdaraz egiten badute, ez badut euskarazko erreferenterik, nolatan hasiko naiz ni euskaraz? Bi aldetatik eragin behar da horretan: batetik, euskaraz ari diren erreferenteak ikusarazi behar dira –gaur egun sare sozialetan aritzen dira euskaldunak euskaraz–; bestetik, erreferenteak sortu behar dira". Azpeitia gi-

sako arnasmuneak horretarako "leku aproposa" direla uste du: "Euskaraz oso gaitasun egokia dute gaztetxo askok, bizitasuna dute ahoz-kotasunean, euskara dute eguneroko hizkuntza... Kontzientziazioan eragin behar dugu: Azpeitia euskaraz ulertzen badugu, euskalduntasuna azpeitiartasunarekin lotzen badugu, ez diezaiozun azpeitiar izateari utzi sare sozialetan".

Erreferenteei lotuta, kontzientziazioan eragitea euskalgintzan aritzen diren eragileen ardura dela uste du Uemako kideak, eta Uemaren ardatz nagusietako bat horixe dela azaldu du. Dena den, ardurak eta protagonismoa ez direla nahasi behar zehaztu du. "Askotan, gazteei buruz helduon ikuspegitik hitz egiteko joera daukagu, gazteei zer egin behar duten esateko joera. Gazteei eman behar diegu protagonismoa, lan egin behar dugu haiekin, baina gurasokeriarik gabe".

Euskarazko ikus-entzunezkoen sorkuntza bultzatzeko eskatzen ari diren eragileak gero eta gehiago dira, eta gaia hasi da gizartean lekua hartzen. Horren bultzatzaile nagusia Pantailak Euskaraz taldea izan dela uste du Aranek; izan ere, Uemaren ikerketak talde horrek ohar-tarazitakoa berretsi duela azaldu du. "Pantailak Euskarazekin egin dugu ikerketaren emaitzak aurkezteko saio bat, baita Eusko Jaurlaritzarekin ere. Erronka handia da ikus-entzunezkoen arloan daukaguna, eta erronka horri elkarlanean erantzun behar diogu derrigor".

### **Susmoak berretsita**

Ikerketaren emaitzak ikusita, lan hori egiterako zituzten susmoak "berretsi" egin direla azaldu dute Azpeitiko ikastetxe guztietako ordezkariak. Urola Ikastolako kideak ez dituzte "ustekabeen" harrapatu ikus-entzunezkoen kontsumo datuek. "LHtik DBHra igarotzen direnean, aldatu egiten da ikasleek telebistan kontsumitzen duten edukia; adin tarte horretan nabarmen jotzen dute gaztelaniazko edukietara. Eta mugikorra eskuratu orduko Tik-token pasatzen dituzte orduak gaztelaniazko bideoak ikusten".

Haratago joan dira Iraurgi Ikastetxeko kideak emaitzak "baikorregiak" ez ote diren aipatuta. Izan ere, azken urteetan euskararen erabilerak eta euskal kulturaren kontsumoak behera egin dutela azpimarratu dute haiek. Hala diote Karmelo Etxegaraiok ere: "Ikasleen erreferenteak, informazio iturriak, aisialdi moduak, hizkuntza erabilerak... abiadura bizian ari dira aldatzen".

Gai horrekiko "kezka" agertu dute Iraurgiko kideek ere. Hala azaldu dute Ikasberriko ordezkariak: "Gazteek gaur egun kontsumitzen dituzten ikus-entzunezkoen ehuneko handi bat erdal hizkuntzetan egina da. Horren ondorioak agerian geratzen hasi dira dagoeneko, gero eta ohikoagoa baita gazteek aisialdi uneetan erdarara jotzea".

Gizartea "gaiaren larritasunaz" ez dela ohartu uste dute Iraurgi Ikastetxeko ordezkariak, eta horiek gehien kezkatzen dituen zera da: "Gazteek gero eta gehiago jotzen dute gaztelaniara, eta datozen urteetan egoera ez da hobetuko, larritu baizik. Ikus-entzunezko kontsumoa eta beren erreferenteak gaztelaniazkoak dira, eta euskarak ez du ia presentziarik. Gazteentzat bertako komunikabideak ez dira erakargarriak, eta horiek indartu behar ditugu".

**"IKUS-ENTZUNEZKO  
EDUKIEN ITSASO  
HORRETAN GERO ETA  
TXIKIAGO AGERI DA  
EUSKARA"**

**"ESKAINZAK ASKO  
BALDINTZATZEN DU  
KONTSUMOA, ETA  
HORRETAN BADAGO  
ZER EGINA"**

**"IKASLEEN  
ERREFERENTEAK,  
ITURRIAK, AISIALDIA...  
ABIADURA BIZIAN ARI  
DIRA ALDATZEN"**

**"GIAZ HAUSNARKETA  
KOLEKTIBOA EGIN  
BEHAR GENUKE, ETA  
ERABAKI KOMUNAK  
HARTU"**



Kezka "orokorra" dela adierazi dute Karmelo Etxegaraiko kideek, ikastetxeak, eragileak nahiz udala aipatuta. Pantailetatik iristen den guztiari aurre egitea ez dela "erronka makala" azaldu dute haiek. "Giaz hausnarketa kolektiboa egin behar genuke, erabaki komunak hartu eta eragile bakoitzari dagozkion ardurak eskatu. Izan ere, instituzioek beren erantzukizuna dute; ETB1en egoera, tokiko aldizkariak eta telebistei emandako dirulaguntza eskasak... Eta familiek ere badute erantzukizuna, askok eta askok haurrek beste hizkuntza batzuk ikas ditzaten erdarazko pantailen erabilera sistematikoa bultzatzen dutelako. Bestalde, ikastetxeok ere badugu ardura".

Kontsumoan aldaketa egiteko ikastetxeek duten ahalmena "mugatua" dela uste dute Urola Ikastolakoek. Dena den, ikastetxeak hainbat gauza egin ditzakeela adierazi dute. "Ikasleei euskarazko ikus-entzunezkoetan ateratzen diren berrikuntzak jakinarazi, euskarazko edukia duten plataformetarako bideak erakutsi edota ikasleengan eragin dezaketen gonbidatuak ekarri ikastetxera, pantailaz haratago euskal erreferenteak izan ditzaten". Euskararen erabileraren emaitzak onak diren arren, hausnartu beharra dagoela uste dute. "Inertziaz gara euskaldunak ala hizkuntza hautua egin dugulako? Kontzientzia hartzea falta zaigu".

Egoerari buelta emateko testuingurua da Ikasberri Ikastolako kideak gehien kezkatzen dituen. "Euskararen erabileraren beharakada saihestea lan ikaragarria da gaur-gaurkoz, inguruan ditugun hizkuntza erraldoiek egiten duten presioa handia baita. Presio horri aurre nola egin asmatzea da egoerari buelta ematen hasteko modua". Halaber, ikus-entzunezko produktuen itsasoa "erraldoia" izanik eta euskarak hor bere lekua baldin badu ere, gazteek erdal produktuak "erakargarriago" ikusten dituztela azaldu dute. "Ikuspegi hori aldatzeko prozesua egitea da arduratzen gaituen auzia". ■■■





**BERTSOLARI  
TXAPELKETA  
NAGUSIA 2022**

www.bertsolari.eus  
www.bertsosarrerak.eus

**FINALAURREKOAK  
2. ITZULIA**

**AMURRIO**  
Azaroak 19, larunbata. 17:00.  
Bañueta Kireldegia

**BAIONA**  
Azaroak 26, larunbata. 17:00.  
Lauga

**BILBO**  
Abenduak 3, larunbata. 17:00.  
Bizkaia Frontoia



**FINALA**

**IRUÑEA**  
Abenduak 18, igandea. 11:00  
Nafarroa Arena

Antolatzailea: | Laguntzailea:



# NON DAGO UZTARRIA?



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarría pertsonaia eta bidali erantzuna [lehiaketakuztarría@gmail.com](mailto:lehiaketakuztarría@gmail.com) e-postara azaroaren 18a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

**Saria:** Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Urriko Uztarría aldizkarian Uztarría pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 44. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Arantza Olazabal bazkidea izan da irabazlea.



URDAIAZPIKO,  
HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeko berezitasuna:  
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOIA



Eñaut: 656 79 14 19  
Oier: 618 24 01 73  
[kutxillo@gmail.com](mailto:kutxillo@gmail.com)  
Damazo Azkue 6  
AZPEITIA

# "Modarako nortasuna galtzen ari da jendea, klonak ematen dugu"

**IÑAKI ANDRES** DISEINATZAILEA

Patroigintza ikasi zuen Iñaki Andresek, eta ikuskizunetarako jantzietan espezializatu zen. Diseinatzailetzat du bere burua, eta duela urte batzuetatik irakaskuntzan ere aritzen da. Gaur egun, joskintza tailerrak ematen ditu; hori du ogibidea.

Testua: **Elena Margüello**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Elena Margüello eta utzitakoak**.

**D**iseinatzailea eta irakaslea. Bi hitz horiek definitzen dute Iñaki Andresen (Lezo, Gipuzkoa, 1971) gaur arteko ibilbide profesionala. Euskal Herrietik bizi izan zen urte batzuetan, eta orduan hasi zen lehenengo diseinuak egiten. Afizio hura lanbide bilakatu zitzaion denborarekin, eta orain, hainbat herritarri josten irakasteko espazioa ere badu.

Ibizan (Espainia) bost urte eta Bartzelonan hamabi egin zituen Andresek, eta gauez egiten zuen lan batean nahiz bestean: "Moda oso presente dago gaueko mundu horretan". Ibizan emandako lehenengo bi urteetan, uda sasoiaren eta negua Hernanin (Gipuzkoa) igarotzen zituen. Hernanin, Valenciaga markarentzat lan egiten zuen jostun bat ezagutu zuen. Emakume hark hezkuntzara bideratutako espazio bat zuen, eta harengana joaten hasi zen Azpeitiako bizilaguna: josteko makina nola erabili ikasi zuen lehenengo, eta norberak bere buruan zituen ideiak nola gorpuztu geroago.


Horrela hasi zen gaur egun diseinatzailea dena berarentzako arropak egiten: "Buruan nituen diseinuak eta dendetan aurkitzen ez nituenak

garatzen nituen". Ibizan zela, jendea diseinu horiek ikusi eta "eskean" hasi zitzaionean ekin zion besteentzako arropa egiteari: Pacha diskotekako gigoloentzako eta disko jartzaileentzako hasi zen lanean. Hala ere, "mugatuta" ikusten zuen bere burua, patroigintzari buruz ez zekielako "ezer", eta Azpeitira itzultzea erabaki zuen, ikasketei ekiteko.

Bi urtez patroigintza ikasi zuen, eta beste bi urtez ikuskizunetarako jantziak egiten espezializatu zen. Nahiz eta ikasketak burutu zituen, "autodidakta" gisa definitzen du bere burua, bere "erara" ikasi baitzuen josten. Hasieran, lauzpabost urtez ikuskizun munduan murgilduta ibili zen, baina Andresen esanetan, Euskal Herrian "oso mugatuta" dago mundu hori: "Ez dago operaririk, eta antzerkiak ere gutxi egiten dira". Horren aurrean, bi aukera zituela ikusi zuen: berriro kanpora joatea edota Euskal Herrian geratu eta ibilbide profesionala beste toki batetik bideratzea. Azkenean, duela lau urte, hezkuntzara egin zuen salto.

Hasieran, hainbat herritako kultur etxeetan ematen zituen joskintza tailerrak: "Nomadak bezala ibiltzen nintzen. Josteko makinak hartu eta

# IÑAKI





egun batean leku batean eta hurrengoan bestean egoten nintzen. Gaur egun, tailerrak emateko bere espazioa du: "Zelai Luzeko lokalean aritzeko aukera sortutakoan, hasieran, astean egun batean soilik ematen nituen saioak, baina jende asko hasi zen ikastaroetan izena ematen, eta orain, 40 ikasle inguru ditut".

Adin guztietako ikasleak ditu diseinatzaileak, baita 7 urteko haur bat ere. "Berez" ez ditu hain ikasle gazteak hartzen, baina mutiko haren amak deitu zionean, bere "txikitako istorioa" zirudiela sentitu zuen Andresek. Izan ere, "txikitatik" gustatu zaio hari modaren mundua. Haurra zela arreba txikiari *Nancy* panpina bat oparitu ziola ere gogoratu du, baina arrebak hura ez zuela ukitu ere egin azaldu du, samurtasunez: "Niretzako hartu nuen, eta panpinari arropak egiten aritzen nintzen".

Jendeari josten irakasteak "emozionatu" egiten du Andres: "Beraiek hain emozionatuta ikusten ditudanez, ni ere emozionatu egiten naiz". Ikasleek lehenengo diseinuak egitea lortzen dutenean sentitzen duten "zirrara" ikustea gustatzen zaio irakasleari. Gainera, ikasle batzuek joste tailerrean ematen duten denbora terapia tarte bezala sentitzen dutela ere azaldu du diseinatzaileak.

### Moda eta globalizazioa

"Norberaren jarrera erakusteko modu bat izan daiteke moda, negozio bat, munduan gehien kutsatzen duen bigarren industria, nire bizimodua edota sormena". Horrela definitzen du

moda diseinatzaileak. Haren ustez, "gauza asko" barnebiltzen ditu kontzeptu horrek, baina zerbait nabarmentzekotan, "norberaren izaera islatzeko modua" dela adierazi du: "Janzteko moduak asko esan nahi du pertsona bakoitzaren izaerari buruz".

Hala ere, gaur egungo globalizazioa dela eta, hori "galtzen" ari dela sentitzen du Andresek. Edozein hiriburutarra bidaiatuta ere –izan Madriler, Parisera edota Londresera–, "erdiguneetan denda berdinak" daudela adierazi du diseinatzaileak, triste: "Modarako nortasuna galtzen ari da jendea, klonak ematen dugu".

Inspirazioa ere garrantzitsua izan ohi da sormen prozesuetan, eta Andresek aitortu du "diseinatzaile askoren mireslea" dela. Garaiaren arabera, arreta "batarengan edo bestearengan" jartzten duela adierazi du, eta diseinatzaile "askoren" ibilbidea "gertutik" jarraitzen duela.

## Iñaki Andres

- **Jaiotze data:** 1971ko apirilaren 5a.
- **Ikasketak:** Patroigintza eta ikuskizunetarako jantzigintza.
- **Lanbidea:** Diseinatzailea eta irakaslea.
- **Diseinatzailea ez banintz...** David Bowie izango nintzateke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Ezer ez egitea.





Dendetan eros daitezkeen diseinu komertzialei dagokienez, Balenciaga etxeko Demna Gvasaliarenak eta Gucciko Alessandro Michelerenak ditu gustuko; ikuskizun diseinatzaileetan, berriz, Pam Hogg nabarmendu du. Bestalde, David Bowie artista "atsegin" duela dio: "Erreferente bat da niretzat, eta ez modari dagokionez bakarrik, baita pentsamenduz ere. Ikono bat da".

Marka famatuak eta moda asteak ere jarraitzen ditu Andresek; Pariskoa, Milangoa eta Londresekoa "gehienbat". Telebistatik edota Internetetik, baina hiriburu horietan gertatzen ari denaren berri izaten saiatzen da. Gainera, ikasleek tailerretan zer egin dezaketen galdetzen diote, eta horrek "eguneratuta egotea" eskatzen diola sentitzen du.

Nahiz eta ez den Parisko, Milango edota Londresko moda asteetan inoiz izan, Bartzelonan bizi zenean, Pasarela Gaudi izeneko desfilea joaten zen lagunekin; gaur egun, 080 izena du desfile horrek. Andresek kontatu duenez, "zaila" izaten zen desfile batzuetarako sarrera lortzea: "Gonbidatu bezala sartzen zinen edo ez zenuen aukerarik". Garai hartan, Andresei edota haren lagunei desfilearen baterako gonbidapenak iristen bazitzaizkien, desfile baten eta beste baten tartean, dena garbitzen ari ziren bitartean, jendea kanpora irteten zen momentuan, beraiek komunitan ezkututzen zirela kontatu du barrez: "Modu horretan, egun osoko desfileak ikusten genituen. Hango atezainek zera pentsatuko zuten: 'Desfile guztietarako sarrerak dituzte, eta beti lehenengo ilaran daude. Nortzuk dira hauek?'". ■

**bertako** -REKIN BAI!

igogailuak | ascensores

ORDTARIKO ZERBITZUA

**100€-tik/hileko**

- Biziak mantentze- lan profesionalari
- Biziak beruntako 24/7/365 zerbitzuan

GIPUZKOA

943 903 450

www.bertako.eus



## Itzala

Zein da itzal zuzena?



## Margotu

Zeinen ederki hasto artean jokasean! Zoriona erabatekoa izan dadin, eman lezaiozu kolorez inuldiari. Erabili margo hori, laranja, berde, gorri eta marroiak.







## Arrotza

Basoan naturalki aurkituko ez genituzkeen sei elementu daude irudi honetan. Ikusten al dituzu?


## Hizki-Zopa

Zopa honetan, berriz, basoan naturalki aurkituko genituzkeen elementuak daude, irudian ere ageri dira eta 11 dira guztira.


## Seiko Sudokua



Jakingo duzu beharbada, baina hosto eroriek osatzen duten geruza bigun horri ORBELA esaten zaio. Bete lauki zuriak hitz hari osatzen duten hizkien bidez (O, R, B, E, L eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



## Dadua



Bederatzi dada hauetatik best bat irudi zabalduarekin bat datoz, eta beste laurak ez. Zeintzuk dira onak? Asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadua muntatu.



Aise konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.

Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)

# IZAN IRAKUR ZALE!



**EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO  
DESKONTUA IZANGO DUZU**  
bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

**UZTARRIA**

LAGUNTZALEA



Euzko Legebiltzaria





# Adarraren puntan



OIER ETXEBERRIA

**K**irmen Uribek dio zuhaitzek eta arrainek elkarren antza dutela, batzuek enborrean eta besteek ezkatetan uztaiak dituztelako. Uztai horien arabera jakin daiteke zein den izakiaren adina. Eguraldi urte ona izanez gero, zuhaitza asko hazten da, eta urte horretako eratzuna lodia izango da. Urtea gogorra denean, aldiz, arrasto mehea osatuko du, kostatutako hazkuntzaren erakusgarri. Orbainezko eleberri autobiografikoa da, ez dena bistaratzen ildokia zerratutakoan baizik.

Harrigarria zait animalien eta pertsonen kasuan zeinen enpatikoak garen jaioberriekiko, katakume edo haur hankagorri. Aldiz, zuhaitzekiko hartu-eman emozionala askoz sakonagoa da sekuoia edo olibondoa zenbat eta zaharragoa izan, bizi izandakoak landareei zilegitasuna emango balie bezala.

Dudan beste zalantzetako bat da zergatik marrazten ditugun zuhaitz genealogikoak azpikoz gora. Ni abiapuntutzat hartu eta adarretan gora aitona-amonen bila, Elkanoren ahaidetzarekin topo egin arte. Horrelakoxea da gure memoria: arbasoak zuztarretan beharrean, hosto ihartutzat errepresentatzen ditugu plastikako koadernoetan.

Duela laurogei amama paleolitoan geunden. Orain, pago lepatuen itxurako familia

eredu zabalek adabegirik gabeko pinu luzeei eta iharrei bide eman diete. Uste izateraino saroi en bueltan lizarrak eta lur mugetan urkiak ausaz ernatzen direla.

Barne diseinatzaileengatik balitz, sukaldeko mahaiak eta teilatuko kapirioak egurrezkoak lirateke. Inondik ere etorkizuneko eraikuntza materiala, estetikoa bezain organikoa. Autocadeko habeak ez ditu pipiak jotzen, baina hiru txerrixoetatik bigarrenari otsoak putz eginda bota zion egurrezko etxea, eta ez dakit bada...

Aurrezki kutxek ere igarri izango diote oholen arteko errentagarritasuna iraganeko kontua dela. Gernikako arbola bedeinkatua oxigeno faltak gaixotu du. Intsinisari gaitza sartu zaio, eta haritz edo pagoek, berriz, mimo gehiegi behar dituzte egungo bizimodu okupatuentzat. Utzikieriaz, gure asaba zaharren baratzea ohartzetako ari da pasatzen sorotik zelaira, eta zelaitik basora.

**GURE ASABA  
ZAHARREN BARATZEA  
OHARTZERAKO ARI DA  
PASATZEN SOROTIK  
ZELAIRA**

Oihanaren izaera publiko-pribatuarena eztabaida eremu lokaztia da. Alkazi esolek jabea dute, baina gibelurdinek ez. Monolaborantzaren aurkako hitzaldiak ugari izan arren, horietatik gutxi abiatzen dira aihotza hartuta, ote sailean arrastoak irekitzera. Ni ez naiz inor zure lurrean zer erein behar duzun esateko, baina landatu ezazu eukalipto eta kexatuko naiz.

Zumaiako flyschera egindako eskola irteera batean esan ziguten itsas labarreko geruzak historia liburu bateko orrialdeen modukoak direla, garai bakoitzak bere kapitulua idazten baitu hankapean. Gure belaunaldia uzten ari garen aztarna lodi askoa izango da, fisik lotsatu gabe zapal-zapal eginda. Matarrasa eta *tabula rasa*. Flyschak ere arrainen eta zuhaitzen antza duela, alegia.

Kopernikoren eta Galileiren arteko eztabaidak ebidentea dirudi gaurko zientziaren begietara. Heliozentrismoa bezain agerikoak dira ilargiaren zikloak eta ibilerak ere. Baina oraindik, larunbat eguerdiko deitzen du norbaitek *Landaberrira*, Jakobari galdetuz ea nola den posible ilbehera izatea, bezperan ilargia biribil-biribila ikusi bazuen; noiz amaituko den ilzaharra eta noiz komeni den kiwiak kimatzea. Adostasun maila horrekin ederrak gaude gure mendiak artez janzteko. ■

# Etenik ez duen obra

TESTUA: **MAILO OIARZABAL**

ARGAZKIAK: **MAILO OIARZABAL ETA  
UTZITAKOAK**

Antzerkiz jantziko da aurten ere udazkena Azpeitian. Aldizkari hau irakurleen eskuetara iristerako hasita izango dira aurtengo Euskal Antzerki Topaketak. Herriko kultur jardunaldirik beteranoenak Euskal Herriko zaharrenetakoak ere badira honezkero bere esparruan, zaharrenak ez badira. 1983tik gaur arte, urte bakar batean hutsik egin gabe egin dira Topaketak; eta horrela, ibilian-ibilian, 40. edizioa harrapatu dute.

"Era batera edo bestera, sortutako oztopoak gaindituz, eman beharreko birak emanez, 40. aldiraino ailegatu gara, eta hori benetan pozgarria da", dio Maria Jesus Aranburuk (Azpeitia, 1948). Kultura zinegotzia zen herriko Antzerki Topaketak martxan jarri zirenean, Imanol Elias zen alkatea, eta buru-belarri ibili ziren biak gerora iraun duen zitaren oinarriak finkatzen eta lehen topaketak antolatzen. Eliasek eskarmentu handia zuen antzerkigintzan; aktore, idazle eta zuzendari, 60ko hamarkadatik Azpeitian antzerkiarekin zerikusia zuten proiektu guztietan partaide edota sustatzaile izandakoa zen

alkate berria. Aranburuk, berriz, "beste maila batean", baina antzerkiarekiko zaletasuna partekatzen zuen harekin, eta konbinazio ezin hobea sortu zen udalean bien artean.

"Azpeitian bazegoen tradizioa santotomasetan antzerkia egiteko, eta hori aprobetxatuz eta horrez gain, zerbait egin behar genuela erabaki genuen, biok afizio handia genuelako".

"Kontaktuak egitea izan zen gure lan nagusia hasieran; udalean geunden gu, ipini behar zen dirua ipintzeko prest geunden, eta antzokia ere bagenuen", kontatu du Kultura zinegotzi zenak. Soreasu antzoki zaharra izan zen Topaketen lehen egoitza; lehen hiru edizioak han egin ondoren, Zelaitxo zinemara aldatu zen antzerkiaren udazkeneko festa; Astotegi aurreko zinema aretoa eraitsi behar zutela eta, 2001ean Soreasu zaharrera itzuli ziren Topaketak; eta hura ere bota eta antzoki berria eraiki bitartean, 2006tik 2010era, Izarraitz pilotalekuan babestu

**HASIERAKO EDIZIO  
HARTAN TALDE  
AMATEURREK  
BAKARRIK PARTE  
HARTU ZUTEN**

ziren, nola hala. 2011n itzuli ziren berriro Euskal Antzerki Topaketak Soreasura, baina antzoki berria estreinatzeko.

Beraz, zer egin nahi zuten erabakita, asmoa aurrera ateratzeko bidaide bila ekin zioten Eliasek eta Aranburuk. "Antzerti [Euskadiko Arte Dramatiko Zerbitzua] martxan zegoen ordurako, eta Eugenio Arozena, hango burua, laguna genuen. Axen Egañarekin ere harreman estua izan genuen, baita Patri Urkizurekin ere. Horrela, antzerki munduko zenbait pertsona kontuan izaten hasi ginen. Gure ideia azaldu genien, eta ilusioz hartu zutela ikusita, Topaketak antolatzeko oinarriak ipini genituen: ez zen mugarik egongo lurraldeei zegokienez, eta printzipioz behintzat, afizionatuen topaketa izango zen, nahiz eta posible zen profesionalen talderen bat ere ekartzea", kontatu du Aranburuk. Azken puntu horretan, Topaketetan zer-nolako taldeak egongo ziren finkatzerakoan "eztabaida pixka bat" izan zutela dio. "Antzerkilari edo konpainia profesionalekin hastea edo amateurekin egitea, amateurrei ikusgarritasuna ematea eta haiek aintzat hartzea" ziren, nagusiki,





Iñigo Agirre eta Pedro Otaegi, 40. ediziorako apaindutako Soreasuko pasabidean. MAILLO OIARZABAL

eztabaida eragiten zuten aukerak. Aranburu berak gogora ekarri duenez, 1980ko hamarkadaren hasierako urte haietan antzerki talde amateur ugari zeuden Euskal Herrian, bazuen indarra antzerkigintza amateurrek, nahiz eta, oro har, talde bakoitza bere herrian eta inguruan aritzera mugatu. Hain zuzen ere, talde horiei ordura arte ez bezalako plaza eskaintzeko prestatu ziren, azkenean, Azpeitian. "Erabaki genuen, hasieran behintzat, amateurekin egingo genituela Topaketak. Deialdia egin genuenean, lurralde guztietako talde amateurrek azaldu ziren, baina batez ere Gipuzkoakoak eta Iparraldekoak".

Hasierako edizio hartan, talde amateurrek bakarrik parte hartu zuten Topaketetan. "Ez gaitzen larrosetan bakarrik gelditu, larrosa horiek arantzak ere izan zituzten eta. Baina batez beste, oso-oso pozik gelditu ginen, bai gu eta bai topaketetan parte hartu

zutenak ere. Horrek bultzatu gintuen jarraipena ematera", aitortu du Aranburuk. Ondorengo urteetan, Topaketak osatzen eta eraldatzen joan ziren, pixkanaka, eta amateurrek profesionaleri tartea egiten ere bai, Eliasen etsipenerako. Hala ere, Azpeitiko taldeak, Antxietak, mantendu zuen urte luzetan hasierako bidea.

#### **Antxieta, ezinbestekoa**

"Imanol ezin da antzerki topaketa hauen historiatik kanpo utzi inoiz, bere presentzia eta lana gogoratu eta mirestu behar ditugu beti", dio Aranburuk, 40. aldira iritsi den proiektuaren lehen pausoez, arrakastez eta zailtasunez mintzo dela.

"40 urte ez dira alferrik pasatzen", dio, bere aldetik, Itziar Oiarzabalek (Azpeitia, 1937), hasierako Topaketa haietatik edota Topaketen hasiera haietatik zer gogoratzen duen galdetuta. Eliasen

emaztea, haren eskutik antzerkiaren munduan murgilduta, Antxieta taldeko kide, 1983ko hasierako edizio hartan parte hartu zuen Oiarzabalek, baita ondoren etorri zirenetako beste askotan ere. 1990eko azken urteetara arte, abendua izaten zen Topaketen hilabetea; eta Aranburuk aipatutakoaren haritik, Santo Tomas egunean bukatzen ziren beti. "Oker ez banago, Antxietakook Santo Tomas egunean egiten genuen emanaldia", dio Oiarzabalek. Antzezle gisa, baina jantzitegiaren zein makillajearen eta karakterizazioen arduradun moduan ere aritu zen Oiarzabal Antxietan. "Pare bat antzezlantarako jostunek egin zizkiguten jantziak, baina gainerakoetan geuk moldatu genituen arropak, neuk egiten nituen konponketak eta", azaldu du. Lehen edizioaren oroitzapen "garbirik ez" duen arren, Topaketetan zein





Maria Jesus Aranburu. ANE OLAIZOLA



Itziar Oiarzabal. MAILLO OIARZABAL

Topaketetatik kanpo egindako emanaldien eta egindako lanen oroitzen ederrak eta bitxikeria asko ditu gogoan Oiarzabalek, eta nostalgiaz mintzo da. "Imanol, Abel *Txapa Txikia*, Juanito Bikendi, Patxo, Pilar Aizpitarte, Maritxo Unanue... Zoritzarrez, asko falta dira".

Gelditu ere, gelditzen dira, ordea, Antxietaren urte loriatsuen lelukotza emateko gai direnak. Oiarzabal bera bezala, Iñigo Agirre (Azpeitia, 1956) eta Pedro Otaegi (Beizama, 1938) dira horietako bi. Biek hainbat oholtza zapaldu zituzten herriko antzerki taldearekin, baina bietako inor ez zen aktore lanetan ibili taldearen lehen urteetan, ezta Topaketen lehen aldietan ere. Agirre bai, hasieratik edo ia hasieratik ibili zen taldearen bueltan, 1981etik, baina eszenatokiak eta argiztapena muntatzen. *Haunditasun ametsak* (1986) izan zen parte hartu zuen lehen

antzezlan. Otaegi, berriz, bi urte lehenago estreinatu zen aktore lanetan, *Lapurreta urtsuarekin*. "Imanolek berak esanda hasi nintzen Antxietan, eta gustatu", gogoratu du, gerora bereziki telebistan ere hainbat lan egitera iritsi zen Otaegik. Hasierako "ardura eta urduritasunak" ere ez ditu ahaztu, "ukondoak sukaldeko mahai gainean tinkatu, eta testua ikasten, irakurri eta irakurri" ematen zituen ordu haiek guztiak.

"Antzerki talde amateurrok oso ate gutxi genituen irekita; herrian antzeztu bai, baina herritik aparte zero emanaldi egiten zituzten talde gehienek. Orduan iritsi ziren Euskal Antzerki Topaketak, eta hasierako haien oinarriak ziren ahal zela euskaraz idatzitako lanak eskaintzea eta talde amateurrei halako bizipoz bat ematea. Horiek dira nik lehen urte haietatik gordetzen ditudan oroitzenak. Imanolen ideia hartatik

abiatuta gorpuztu ziren Topaketak eta, begira, 40. aldira iritsi dira", dio Agirrek. Taldekideen jardunaz, "dena borondatezko lana" zela ekarri du gogora Otaegik, "inongo eskolarik gabe". Biak bat datoz, ordea, ikusleek, herrikideek, beren lana eta ahalegina eskertzen zutela onartzerakoan. "Niri beti kritika onartzen zitzazkidan", dio irribarrez Otaegik, eta jasotzen zuten "babesa" azpimarratu du Agirrek.

#### **Egindakoa, jasota**

Oroitzenak eta bizipenak gal ez daitezen, baina batik bat orain arte egindako bide luze eta mamitsua egoki jasota gera dadin, Wikipedian Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketei eskainitako atala sortu dute 40. edizioaren atarian, Kulturaz kooperatibaren ekimenez.

Orria osatzen ari dira oraindik, baina dagoeneko hainbat informazio baliogarri aurkitu daiteke bertan. ■■■

# SEIN, burdindegia baino askoz gehiago

Ibilbide luzea du gaur egun SEIN burdindegia denak Azpeitian. 1850. urtean du jatorria, eta gaur-gaurkoz, SEIN Briko dibisioak etxerako eta lanerako beharrezko guztia eskaintzen du 1.200 metro koadroko dendan. Era berean, 40.000 produktu eskaintzen dituen webgune berria du: [www.seinbriko.es](http://www.seinbriko.es)



1850. urtean, herritarrek etxerako eta lanerako behar zuten guztia eskaintzen zuen saltokiak Azpeitiko Erdikalean. Urte askoan Almacenes Etxeberria izenez ezagutu zen denda herrian eta inguruetan, eta 2005. urteaz geroztik hasi zuen SEINek ibilbidea. Hornikuntza industrialaren arlo ezberdinetan espezializatutako hiru enpresa garrantzitsuren bat egitetik sortu zen SEIN. Gaur egun, Abadiñon, Arrasaten, Azpeitian eta Gasteizen ditu delegazioak, eta Euskadiko industria sektore guztiekin egiten du lan.

Briko dibisioari dagokionez, 2017an guztiz eraberritu zuten profesionalei, gremioei eta partikularrei zuzendutako denda. Gaur egun, SEIN Briko departamenduak etxerako eta

lanerako beharrezko guztia eskaintzen du 1.200 metro koadro dituen dendan: "Dendara etortzean, produktuak ikusteko eta horiek probatzeko aukera ematen diegu bezeroei. Lehen marken zein merkeagoak diren produktuen eskaintza handia dugu bertan, hala nola etxeko tresnak, pinturak, dekorazioa, segurtasuna eta lanerako arropak ditugu eskuragarri", agertu du SEIN burdindegiko arduradun Olatz Etxeberriak.

Garmendipeko saltokira joaten direnek eskaintza berezien txokoa ere aurkituko dute. Urtean zehar lau kanpaina egiten dituzte, urtaro bakoitzarekin bat, eta lorezaintza, berokuntza edota aireztapen arloko eskaintza bereziak izaten dituzte. "Azken finean, SEINera



etortzen direnek eskura dute beren etxeetarako beharrezkoa duten guztia", dio Etxeberriak.

#### [www.seinbriko.es](http://www.seinbriko.es)

Dendara bertaratu ezin dutenek, ordea, badute orain beste aukera bat: **seinbriko.es** webgunea. Lorezaintza, sukaldeko tresnak, argiztapena, etxetresna elektrikoak, osagarriak... Dendan bertan dauden produktu guztiak eta are gehiago dauden erosketa gune berria da hori: "Kontsumitzeko ohiturak aldatu egin dira, are gehiago pandemiaren ondorioz, eta garbi genuen bezeroei aukera hori eman behar geniela. Webgune berrian 40.000 produktu dituen katalogoa dugu eskuragarri, eta bezeroek bertan erosketak egin eta produktuak dendan edo etxean jasotzeko aukera dute. Hurrengo asteetan, beriz, Bertan merkatarien elkarteko Enkarguk zerbitzua ere erabilgarri izango dute gure bezeroek", azaldu du Marketin arloko zuzendaria den Josu Ansolak.

#### **Ternua arropak, lanerako**

Azken berrikuntza bezala, beriz, Ternua etxeak sortu berri duen lanerako arropa markaren lehen salmenta puntua da SEIN burdindegia. "Beti

saldu izan ditugu lanerako arropak, baina Ternuako ordezkariak proiektua aurkeztu zigutenean ez genuen dudarik egin haren parte izan behar genuela. Kanpo kliman edo *outdoor* gisa ezaguna den arloan barneratutako jakintza guztia lanerako arropak egiteko erabili dute. Kalitate eta diseinu erakargarriak dituzten arropak dira, lanerako edo kalean ibiltzeko aproposak, eta gainera, guztiz jasangarriak eta birziklagarriak. Kostuari dagokionez ere, prezio lehiakorrak dituzte", adierazi du Ansolak. ■



# SEIN

Lanabesak. Zerbitzuak. Ernaitzak.

## **TERNUA 'WORKWEAR' MARKAKO LEHEN SALMENTA PUNTUA DA SEIN BURDINDEGIA**

**SEIN**

Garmendipe kalea, 1 • Azpeitia

[www.seinbriko.es](http://www.seinbriko.es) • [www.sein.es](http://www.sein.es)

Instagram icon [sein.briko](https://www.instagram.com/sein.briko)

# Hurrengo geltokia



MIREN SEGUROLA

**H**urrengo geltokia: Julian Elortza. *Próxima estación:* Julian Elortza. Hurrengo geltokia: Lasao. *Próxima estación:* Lasao. Hurrengo geltokia: Zestoa. *Próxima estación:* Zestoa. Eta segi horrela, auskalo noraino. Elebitasuna hezurretaraino sartuta, ofizialak diren bi hizkuntzak modu berean kontuan hartuta, jazarria eta zapaldua izan den euskarak eta munduan 592 milioi hiztun dituen gaztelerak arreta eta zaintza bera beharko luketela sinetsita.


Horrela iritsi zaigu elebitasuna, urte askoan goitik behera irentsarazi dizkiguten konplexuz betetako erabakien artean. Izan ere, Franco hil baina lur azal-azalean lurperatu zutenean hasi ziren euskara onartzen pixkanaka, Euskal Erdian ofizialtasuna iritsi zen gero, baina erdarazko baliokidea ere ondoan behar zuen beti, badaezpada, inor baztertuta edo irainduta ez sentitzeko. Aurrena bide seinaleak sartu zizkiguten begietatik: Azkoitia, Azcoitia. Zestoa, Cestona. Zumaia, Zumaya. Getaria, Guetaria. Zarautz, Zarauz. Gero idatzi ofizialen eta gainerakoen ordua heldu zen, eta horrela jarraitu dugu, gaur arte. Musika Música izeneko jaialdi bat ere antolatu dute azken urteotan Euskal Herriko hiri handienetan.

Erakundeek horrelakoak eginda, ez da harritzekoa herritar arruntak ere eguneroko kontuetan horrela behar duela sinetsi izana. Udalerririk euskaldunenean egon zaitezke, aisialdian, haurrekin jolasean, eta begiralea kapaza da oharrak, post-itak eta antzekoak bi hizkuntzatan idazteko. Jolasak. *Juegos*. Galderak. *Preguntas*. Eta abar. Ez esan ezer, gainera, laster erantzungo baitizu berak denak errespetatzen dituela, gainerakoak errespetatzen ez dituen zu izango bazina bezala. Gure herrian gure hizkuntzan aritzea beste inor baztertzeko arrazoia balitz bezala. Bera malgua, mundura irekia, denen laguna. Eta zu betiko euskaldun tematia. Talibana.

Urte asko behar izan ditugu, baina emakumeen eskubideei dagokienez azkenean denok ulertu dugu berdintasuna ez dela parekidetasuna. Eskubideak gutxituta dituen pribilegioak dituen bezala tratatzen baduzu, inoiz ez direla iritsiko parekoak izatera, eta, beraz, ezinbestekoa dela diskriminazio positiboa, jendartean errotuta dauden zapalkuntzak gainditzen joateko. Hizkuntza kontuetan, ordea, oraindik ere atzeratuta gabilta. Jazarria izan dena eta hegemonikoa dena berdin tratatu behar ditugula sinetsarazi digute, batek bidezidorrak soilik eta besteak munduko autobide eta baliabide guztiak ez balitu bezala. ■■■

**JAZARRIA IZAN DENA  
ETA HEGEMONIKOA  
DENA BERDIN TRATATU  
BEHAR DITUGULA  
SINETSARAZI DIGUTE**







# Elikagunea, barrutik

Sukaldeak, janari dendak, harategiak eta dastaketa nahiz heziketa guneak osatzen dute Elikagunea. Proiektua, ordea, denda fisiko bat baino gehiago da. Saltokiaren leihotik begiratuta ikusten ez diren lan ugari egiten dituzte Artxara kooperatibako kideek, eta horiek ikusteko Elikagunera joan da Uztarrria.

Testua: **Maialen Etxaniz**. Argazkiak: **Maialen Etxaniz eta utzitakoak**.



### SUKALDEKO LANAK

Xabi Izagirre da Elikaguneko sukaldaria, eta askotariko lanak egiten ditu han: cateringak prestatu, ikastaroak eman, ekintza berezietarako menuak egin... Egunerokoan, ordea, prestatutako platerak egitea da haren zeregin nagusia; etxera eramateko jatekoa egitea. Garaiko produktuak erabiliz egiten ditu platerak, lauzpabost proposamen egunero. Goizean goiz hasten da sukaldean lanean, eguerdirako prest egon daitezen. Harrera ona dutela dio Izagirrek.

### PROIEKTUA ETA TALDEA, HANDITZEN

2018an ireki zituen ateak Azoka Plazako Elikaguneko, Euskal Herriko elikagaien topaguneak. Bertako produktuak sustatzeko, kontsumo eredu eraldatzeko eta lehen sektorea indartzeko helburuz ekin zioten proiektuari, eta hastapenetatik Artxara Kooperatiba Elkarte Txikiak kudeatzen du. Urte gutxitan indar handia hartu du: hiru lagunek abiatu zuten bidea, eta gaur egun zazpi kideren artean banatzen dituzte eginbeharrak. Langile bakoitzak ardura zehatza duen arren, denetarik egiten dute guztiek. "Beti dago zeregina", diote.



### HARTU-EMANA, BERTATIK BERTARA

Bertako produktuak dira Elikaguneko protagonistak. Euskal Herriko lehengaiekin osatutako elikagaiak, bertan hazitako animalietatik eratorritako produktuak eta zenbait arrain nahiz kontserba aurki daitezke dendan, baita inguruko baserriarren barazkiak ere. Hori dela eta, Elikaguneko kideak une oro egoten dira harremanetan baserriarrek eta ekoizleekin. Elikaguneko eskaera egiten du, eta ekoizleak materiala dendara eramaten du, sarritan barzaketik jaso berritan.





### **EZER FALTA EZ DADIN**

Elikagunera iritsitako materiala biltegian jasotzen dute normalean, behar bezain pronto saltokira ateratzeko. Hain zuzen, hori da Elikaguneko kideen beste eginbeharretako bat: saltokiko apalak txukun mantentzea, produktuak behar bezala sailkatzea, itxura ona zaintzea, eta, batez ere, apalak betetzea, ezer falta ez dadin. Era berean, produktuen jarraipena egin behar izaten dute horien freskotasuna, itxura, iraungitzea eta abar kontrolatzeko. Gaur egun, Euskal Herriko 130 ekoizle baino gehiagoren produktuak eskaintzen dituzte: garaiko barazkiak, lekaleak soltean, edariak, esnekiak, askotariko ogiak, barazki eta lekale kontserbak...



### **HARATEGI-URDAITEGIA ETA ENKARGUK**

Basque Label harategi-urdaitegia da Elikaguneko duen beste berezitasunetako bat. Bertako okela da eskaintzaren ardatza. Agurtzane Odriozolak ondo ezagutzen ditu produktuak, eta mimoz prestatzen ditu harategiko jakiak, tartean, hanburgesak. Beste zereginetako bat da Enkarguk zerbitzuaren bidez egindako eskaerei erantzutea. Bezeroek eskatutako produktuak bildu ostean, Enkargukeko banatzailea horien bila joaten da, etxez etxe banatzeko.





### **TAILERRAK IKASTEKO; DASTAKETAK GOZATZEKO**

Salmentaz gain, elikagaien balioa emateko ekintzak antolatzen dituzte, Elikaguneko sukaldeak eskaintzen dituen aukerak baliatuz. Besteak beste, sukaldaritza ikastaroak, produktuen aurkezpenak, dastaketak edota hitzaldiak egiten dituzte Azoka Plazan, gehienetan beste eragile hainbatekin elkarlanean.

### **BANAKETA, SUKALDEETARAINO**

Ekoi-zelek saltokira eramandako produktu guztiak ez dira saltzeko; horietako asko herriko jangela kolektiboetara bideratzen dituzte. Elikaguneko kideak arduratzen dira elikagaiak zuzenean jangeletako eta jatetxeetako sukaldeetara eramateaz, ekoi-zelekin elkarlana bultzatuz, irabazi asmorik gabeko kudeaketa eginez, eskaerak eta banaketak zentralizatuz eta elikagaien banaketa antolatuz. Uztaro haur eskola, Azpeitiko Ikastola Ikasberri, San Martin egoitza eta Sanagustin kulturgunea dira erabiltzaileetako batzuk. ■■■



SOKA LUZEAN



AMAIA ALBERDI

Hosto ez iraunkorrak

**U**da amaigabea nahi lukete askok. Eguzkia beroa eta eguna luzea. Urtearen aro bakoitzak du, ordea, bere xarma. Urtaro bat aukeratu behar banu, aldaketaz beterikoen, udaberriaren eta udazkenaren, artean egingo nuke zalantza.

Negurako prestaketa da udazkena, eta horren bereizgarria den zerbait da zuhaitzen hostoen erorketa. Beno, hostoen erorketa baino, hobe esanda, hostoen botatzea. Bai, bai, hostoen botatzea. Hosto ez-iraunkorreko zuhaitzek hostoak botatzen dituzte udazkenero.

Energia efizientzia da basoak biluztearen arrazoia. Udazkenean, egunaren orduak gutxitzen doaz, eta horrenbestez, ez du merezi fotosintesia bezalako prozesuak gauzatzea. Hostoetan egiten da fotosintesia, non eguzki energia baliatzen den ura eta karbono dioxidoa elikagai eta oxigeno bihurtzeko. Eguzki jatorriko energia nahikorik ezean, fotosintesia eta hostoa bera mantentzeak ez dute konpentsatzen, eta ondorioz, zuhaitzek hostoak botatzen dituzte energia gastuak murrizteko. Konplexua da oso hostoen botatzea. Bota aurretik, hostoaren triapak guztiz desantolatzen dira, eta osagai horien birziklapena abiatzen da zurtoinetara eta sustraietara. Behin enborrak eta zainak

aseta, eta hostoa guztiz hustuta, botatzen du hostoa zuhaitzak.

Abuztuaren 3an, uda bete-betean, jada hostoa botata zuten pagoak ikus zitezkeen Urbia aldean. Orduan, eguzki energiaren eskasirik ez bazen ere, uraren egarritz genbiltzan denok, baita zuhaitzak ere. Ura ez galtzeko mekanismoak dituzte zuhaitzek, baina lehortea denboran mantentzen bada, mekanismo horiek fotosintesia kaltetu eta hostoa botaraztea eragin diezaiekete. Urbiako pagoek, beste askok bezala, hostoa lehenago botatzea erabaki dute izan dugun uda bero eta lehorra dela eta. Azken horiek ez dute hostoa berrituko datorren udaberrira arte.

Hurrengo urteetarako iragarpena aldatzen ez bada behintzat, geroz eta ohikoagoa izango da hostoen botatzea aurreratzea, baita bero lehorrak zuhaitza eta zuhaizpea kiskaltzea ere. Berriak txarrak dira eguzkiaren onena itzala dela uste dugunontzat! ■■■

**URBIAKO PAGOEK  
HOSTOA LEHENAGO  
BOTATZEA ERABAKI  
DUTE IZAN DUGUN UDA  
LEHORRA DELA ETA**

BOTEPRONTOAN



IGNACIO ARAKISTAIN

Haize bolada

**H**autsak harrotu, iritzi kontrajarriak errotu, eta diagnostiko goiztiarrekin, erratu. Zenbaitek iskanbila sortu eta egin orro. Harro esan garena berde, gaudela lerdea darien enpresek ustiatu gabekoaren alde. Baina egin dezatela nire etxetik apur bat urrunago alde, eta erre ditzatela besteen zelai eta mendialde. Urratu ditzatela besteen bistak, horixe begi bistan ditugunak artatu nahia piztu zaienek. Ez ditzatela gure bideak ukitu, batzuek; ez gaitzatela inozo moduan zifrekin akitu, besteek. Onuraren duda ere, akaso, ukatu? Izango ote gara gai mardul honenertz guztiak aztertzeo gai?

Gertu daukadan Vienako opera parean haize errota bat jarritz gero, astinduko luke bai Azpeititik iristen zaidan haize boladak. Enpresa bat udaletxeko atea joz, komunikabideetan zarata, batzar irekia... Egon, zuk ere sentitu al duzu *deja vu*-a? Badirudi oraingoak ez duela azken guda mediatikoari zerion kirats politikorik. Egoera ez da samurra, mintzen gaituzte fakturek, hipotekek, gaseosoa zein solidoa den krudelkeria orok. Indarrak zertan zentratu, ordea, sorkuntza eraldatzean, kontsumoa murriztean ala pedagogia ekologikoan? Tarte murrizta, galdera ugairerentzat. ■■■

# TiEN21 ESNAOLA

**ZATOZ**  
DENDA BERRITUA  
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · [esnaelek@outlook.com](mailto:esnaelek@outlook.com)



A top-down view of a person's hands typing on a laptop keyboard. The laptop is silver with a black keyboard. To the left of the laptop, there are several sheets of color calibration charts with various shades of green, red, and pink. Overlaid on the right side of the keyboard is a large, colorful graphic that reads 'DISEINU LANAK' in a bold, sans-serif font. The letters are filled with a gradient of colors: blue, green, yellow, orange, red, and pink. To the right of the text is a stylized teal icon of a person wearing a hard hat and holding a pencil, with a gear-like shape below it.

# DISEINU LANAK

- PAPEREKO APLIKAZIOAK:  
FLYERRAK, DIPTIKOAK,  
KARTELAK, ETAB.
- KATALOGO PROFESIONALAK/  
KORPORATIBOAK.
- AURKEZPEN KORPORATIBOAK.
- ESPAZIOEN SEINALITIKA.
- MERCHANDISING-A ETA PACKAGING-A.
- INFOGRAFIAK.

**GUKA**  ZERBITZUAK